

2022

ETORKIZUNA ERAIKIZ

Ez dute (gure) baliorik?

Belaunaldien arteko arrakalaren zeinuak
Gipuzkoan

Julen Cocho Gonzalo



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

2022-04

ETORKIZUNA

ERAIKIZ

EZ DUTE (GURE) BALIORIK?

**Belaunaldien arteko arrakalaren zeinuak
Gipuzkoan**

Etorkizuna Eraikiz, 2022

Creative Commons Licence 4.0 (CC BY-NC 4.0)

You may copy, distribute and make derivative works and remixes for non-commercial purposes based on this work as long as you give the author the credits.


How to cite this report:

Cocho, J. (2022). Ez dute (gure) baliorik? Belaunaldien arteko arrakalaren zeinuak Gipuzkoan. Etorkizuna Eraikiz, GFA.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro



LABURPENA

Askotariko eraldaketa demografiko, ekonomiko eta kulturelek belaunaldien arteko arrakalari buruzko eztabaida piztu dute. Eztabaida horretako ikuspegietako batek gazteen eta nagusien arteko ustezko balio arrakala azpimarratzen du. Haustura horiek gainbegiratu ondoren, Gipuzkoan fenomeno horren presentzia duten zenbait eremu aztertzen dira txostenean. Era berean, belaunaldi arteko elkarrizketa baldintzatzen duten aurreiritzietako batzuk zehaztuko ditugu.

Gako hitzak: belaunaldien arteko arrakala, balioak, desparekotasuna, desoreka demografikoa, sinesmenak

ABSTRACT

Demographic, economic and cultural transformations have spurred the debate about the generational gap. One central strand of the debate is the alleged gap in the values of the young and the old. After reviewing the relevant tensions between generations, the report offers an overview of some aspects that confirm this phenomenon in Gipuzkoa. We will also nuance some important prejudices in the ongoing conversation between generations.

Key words: generational gap, values, inequality, demographic imbalance, beliefs

1. SARRERA


Ikuspegi humanista batetik, gazte eta nagusien arteko ika-mika ez da fenomeno berri bat, eta ez da agertu «ok boomer» eta «kristalezko belaunaldi» esamoldeekin batera. Nolanahi ere, **gizarteko zenbait eraldaketak, esaterako, biztanleriaren zahartzeak eta teknologia berrien agerpenak, agerian jarri dute arrakala bat dagoela belaunaldien artean**. Begien bistakoa iruditu daiteke gazte eta nagusiek desberdin pentsatzen dugula. Pertsonen garapen «naturalaren» baitan dagoela ere pentsa dezakegu. Baina soziologiaren bokazio eszeptikoari jarraikiz, itxurazko ziurtasunak argitu eta fenomeno hori arretaz behatu behar dugu. Belaunaldiek elkar ulertzen dute? Norainokoa da hiztegien arteko distantzia?

Pandemian, fenomeno horren bi aurkako alderdi ikusi ditugu. Batetik, egiaztatu genuen zenbateraino errotuta dauden adinkeria eta adinekoekiko atxikimendurik eza gure gizartean. Halaber, ikusi genuen gazteria osoari egotzi zitzaioela talde jakin batzuen jarrera arduragabeen errua. Bestalde, konfinamendu garaiko ekimen batzuetan, [boluntarioritza sareetako hainbat gazte ikusi genituen adinekoei erosketekin eta oinarritzko zainketekin laguntzen](#). Gazte eta nagusien arteko loturak eta hausturak ulertzeko, txosten honek belaunaldi bakoitzaren bereizgarri diren balioei buruzko zenbait ohar jasotzen ditu.

Belaunaldi hitza hiru modutan aplikatu ohi da gizarte zientzietan (Alwin eta McCammon, 2007: 230). Lehenengoak, ikuspegi mikro batetik, belaunaldiak familia leinu baten mailatzat hartzen ditu. Bigarren adierari jarraikiz, belaunaldiak dira prozesu historikoen protagonistatzat jotzen diren talde sozialak. Azkenik, hirugarren adieraren arabera, belaunaldiak dira jaiotzan oinarritutako taldeak, eta, beharbada, horixe da belaunaldien arteko arrakalaren ikerketan zabalduen dagoena. Ikusmolde horretara joko dugu Gipuzkoan bizi diren belaunaldiak definitu eta bereizteko, eta arreta berezia jarriko dugu bost belaunaldi nagusietan (1. irudia): belaunaldi isila, *baby boom*aren belaunaldia, X belaunaldia, *millennial* belaunaldia eta Z belaunaldia.

1. irudia

Belaunaldi nagusien gida bat



Iturria: Geuk egina.

Belaunaldi horien ezaugarriei buruzko gida bat eman ondoren, txostenaren bigarren atalak gaur egun belaunaldi arrakala gisa ulertzen duguna baldintzatzen duten hiru hausturak (demografikoa, ekonomikoa eta kulturala) izango ditu erdigunean. Txostenaren hirugarren atalean, Gipuzkoako biztanleen sinesmen eta jarrerak aztertuko dira sei ardatzetan, «belaunaldien arteko arrakala» gaizki izendatu horren zeinu nagusiak identifikatzeko. Zehazki, ardatz izango ditugu bizitzarekiko gogobetetasuna, politikarekiko harremana, ideologia, sinesmen erlijiosoak, dibertsitatea eta ingurumena. Azkenik, etorkizunera begira balio nahaspila horretan nabigatzeko probako zenbait gako zehaztuko dira.

2. BELAUNALDIEN ARTEKO ARRAKALAREN KARTOGRAFIA

Aipatu behar dugu banaketa hori mugatua dela, baina adin taldeak tresna egoki bat dira belaunaldien arteko arrakalan pentsatzeko orduan. Saillkapen horren bidez, une historiko oso desberdinak bizi izan dituzten pertsonen arteko aldeak gaingiroki irudikatu ahalko ditugu. Belaunaldi «marka» nagusiak aztertuz gero, errazago interpretatuko ditugu, ondoren, haien balioak.

Belaunaldi onena (1901 eta 1927 artean jaiotakoak) bi mundu gerren ondoriozko suntsipen testuinguruan iritsi zen helduarora. Belaunaldi heroikotzat hartu izan da, gerraosteko berreraikuntzaren arduraduntzat, baina zenbait herrialdetan soilik aplikatu daiteke hori. Gure kasuan, Espainiako Gerra Zibila bizi izan zuen belaunaldiaz ari gara. Gipuzkoan, belaunaldi horretako 4.000 pertsona pasatxo soilik daude.


1928 eta 1945 artean jaiotakoak, **belaunaldi isilekoak**, nabarmen gutxiago izan ziren, 1930eko hamarkadako krisi ekonomikoaren ondorioz. Estatu Batuetan belaunaldiari izen eman zioten kronikek gazteen ekintza falta nabarmendu zuten, haien gurasoekin alderatuta. Alabaina, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren eta rock and rollaren jaiotzaren protagonista ere izan ziren. Gure testuinguruan, berriz, gerraostearen eta Francoren diktaduraren ondorioek oso bestelako kutsua ematen diote «isila» terminoari. Biztanleriaren % 10,89 dira.

Hurrengo belaunaldia, **baby boomarena**, oso ugaria izan zen, izen ematen dion jaiotza tasa handiaren ondorioz. 1946 eta 1964 artean jaiotakoak Gipuzkoako biztanleriaren laurden bat dira. Aldaketa garai batean hazi ziren, kontsumo gizarte betean, emakumeen laneratzeak eta industria berrien sorrerak markatutako aukeraz betetako garai batean. Mendebaldean 1968. urtearekin eta gizarte mugimendu berrien sorrerarekin lotzen dugu belaunaldi hori, baina 1970ko eta 1980ko hamarkadetako neokontserbadurismoaren ideien gorakadarekin ere lotu izan da. Hurbileneko testuinguruan, baby boomerrak zenbait prozesutako protagonista izan dira: diktaduratik erregimen demokratikorako trantsizioa, autogobernuaren eraikuntza eta eliteen belaunaldi aldaketa.

X belaunaldiko kidearik gazteenak demokrazian jaio ziren eta guztiak aurreko belaunaldiaren oso bestelako testuinguru batean igaro ziren helduarora. Belaunaldi horrek beste

1. grafikoa

Belaunaldi bakoitzaren pisua Gipuzkoako biztanleriaren guztizkoan, 2021ean



Iturria: Geuk egina, EINen (2021) datuetan oinarrituta.

aldaketa garrantzitsu batzuk izan zituen aurrez aurre: industria birmoldaketa, zerbitzu gizaratearen finkapena eta globalizazioa.

1965 eta 1980 artean, erregimen demografiko berrirako iragatea finkatu zen eta 1981an, haurren heriotza tasa murriztu zen arren¹, jaiotza tasak ere behera egin zuen eta ez zen iritsi ordezkatzeko indizera² $-2,1$ seme-alaba, ama bakoitzeko—.

Eraldaketa demografiko horien ondorioz, **millennial** belaunaldia aurrekoak baino urriagoa da. Globalizazioko eta «eurooptimismoko» prozesu batean hazi ziren eta, gaztaroan, informazioaren gizarterako iragatea eta Interneten hasiera bizi izan zituzten. Alabaina, promes hautsi baten istorioa izan zen haiena. Millennial nagusienek 2008ko krisiaren hasieran hasi zuten beren laneko bizitza. 2020az gerotik, millennial gazteenek ere krisi egoera bat izan zuten aurrez aurre, pandemiaren ondorioak zirela eta. Aurreko zenbait joera, enpleguaren malgutzea eta prekarietatea kasu, kronifikatu eta areagotu egin dira orduetik.

Errealitate horren ondorioetako batzuk (nagusiki belaunaldi horretako kiderik gazteenetan aurki daitezke) **centennial** belaunaldian ere ikus ditzakegu. Z belaunaldiko kideak biztanleriaren % 16 dira eta 9 eta 24 urte artean dituzte. Kultur erreferentzia desberdinak dituzte eta aro digitalean jaiotako lehenengo belaunaldizat jotzen da, baina belaunaldi honen «marka» gehienak zehazteke daude oraindik ere.

Azkenik, **Alpha belaunaldia** aipatu behar dugu, 2013tik aurrera jaiotakoena. Oso-osorik XXI. mendean jaiotako pertsonen osatutako lehen belaunaldia.

¹ Haurren heriotza tasaren beherakada bizkortu zen Estatuan, 1950ean % 64,2 izatetik, 1981ean % 12,5 izatera (Nadal, 1976; Gutiérrez eta Regidor, 1993: 112).


² Gipuzkoan bi urte lehenago gertatu zen, 1979an (EIN).

Hiru haustura

Belaunaldien arteko talkak ez dira berriak, baina nagusi eta gazteen artean harremanak izateko modua baldintzatu duten hiru gizarte haustura garrantzitsu daude. Hala, bizi garen testuinguruetan, ditugun baliabideetan eta dugun itxaropenean dauden desberdintasunek eragina dute gure balioetan.

2. grafikoa

Gipuzkoako biztanleria, adinaren arabera, 1975ean eta 2021ean



Iturria: Geuk egina, EInen (2021) datuetan oinarrituta.

Estatuko batezbestekoa (% 19,77) eta Europar Batasuneko 27 herrialdeetako (% 20,6) baino nabarmen handiagoa (EIN, 2021; Eurostat, 2021). Bestalde, Euskadi ama izateko batez besteko adin altuena duen (32,9 urte) Europako bigarren eskualdea da, Eurostaten arabera (2020).


Proiekzio horiei jarraikiz (3. grafikoa), **jaiotza tasa gordinaren jaitsieraren ondorioz, immigrazioz egon ezean, Gipuzkoako biztanleria ia erdira jaitsiko litzateke 2100. urterako.** Hau da, Gipuzkoako biztanle gutxieneko 89 udalerrietako 80tan gaur egun dagoen biztanleriaren kopuru baliokidea galduko litzateke edo, bestela esanda, probintziako 4 hiririk jendetsuenetako (Donostia, Irun, Errenteria eta Eibar) biztanleriaren baliokidea.

Bigarren haustura, agian sakonena, laneko adinean dauden millennial eta centennialak izandako erosahalmenaren galera da, aurreko belaunaldietako biztanleek haien adinean zutenaren aldean. ELGEko herrialdeetan,

Lehenengoa, iradoki dugun moduan, **erronka demografikoarekin lotuta dago.** Eurostaten arabera (2021), 2070ean Europako biztanleriaren % 52k 65 urte baino gehiago izango ditu, eta gaur egun adinekoen eta gazteen biztanleriaren artean dagoen desoreka areagotuko da (2. grafikoa). **1975ean, Gipuzkoan, 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren % 8,23 ziren, eta 2021ean, berriz, % 23,04.** Hau da,

3. grafikoa

Gipuzkoako biztanleriaren proiektzioa 2100. urtera arte, immigrazioarekin eta gabe (biztanle kop.)



Iturria: Geuk egina, Eurostaten (2021) datuetan oinarrituta.

gazteen (18 eta 25 urte) pobrezia tasak % 7,6 egin zuen gora 1980 eta 2015 bitartean (ELGE, 2017). Zifrok bereziki hazi ziren 2008an Espainian, eta talka egiten dute 65 urtetik gorako pertsonen pobrezia tasarekin, zeinak 8,6 puntu egin duen behera 2008tik (Sevilla, Santa Cruz eta Ortega, 2021: 9). Estatuan, **X belaunaldiko gazteek 63.400 euroko batez besteko aberastasun garbia zuten**; aldiz, **millennialek 3.000 euro soilik zituzten pandemiaren aurretik** (Montiol eta Farrás, 2018: 9).

Alde hori lan merkatuan eta etxebizitza bat eskuratzeko aukeran ere ikus daiteke. Batetik, langabeziak³, lanaldi partzialek, gehiegizko kualifikazioak eta egiturazko prekarietateak bereziki eragiten diete gazteei. Pandemiak agerian jarri ditu arazo horiek, eragin berezia izan baitu epe laburreko enplegu ahulean, eta halako enplegua du 16 eta 29 urteko pertsonen % 72,1k Espainian (Injuve eta CJE, 2020: 11). Bestalde, egoera horren ondorioak hauteman daitezke gazteen emantzipazio mailak 2014tik etxebizitza eskuratzeko kostuen igoeragatik izan duen beherakada jarraituan (EGK, 2020; Gazteen Euskal Behatokia, 2020). 2020an, **18 eta 34 urte arteko gazteek beren soldata garbiaren % 66,9 erabili behar zuten etxebizitza bat eskuratzeko Gipuzkoan** (Gazteen Euskal Behatokia, 2021).

Belaunaldi bakoitzaren testuinguruak desberdintzen dituen beste alderdi bat dibertsitatearekin lotutakoa da. Duela hogeitau urte, biztanleriaren % 1 ziren atzerriko jatorria duten biztanleak; gaur egun, aldiz, Gipuzkoako % 11,1ek du atzerriko jatorria (EIN, 2021). **Jatorri kultural desberdinetako millennialen eta, bereziki, centennialen bizikidetzak desberdintasun handia da beste belaunaldiekiko**. Are gehiago 1.5 eta 2.0 belaunaldi sortuberriak izaten hasi diren rolaekin; belaunaldiok dira atzerriko jatorri izanik harrera herrialdean sozializatzen duten pertsonak (ikus Oleaga, 2017).

Eztabaida soziologiko errepikakor eta konponezina da. Ez dakigu egoera horien ondorioz ditugun dauzkagun balioak edo, aldiz, gure printzipioek gidatzen duten gizarteak hartzen duen bidea. Nolanahi ere, komeni da esparru hori kontuan hartzea, ondorengo ataletan aztertuko ditugun balioak interpretatzeko orduan.

³Orkestra - Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren azken txostenak (2021: 74) adierazten duenez, gazteen langabezia Euskal Autonomia Erkidegoaren arazo nagusietako bat da, Europako aipatutako lurraldeekin alderatuta lehiakortasunaren arloan.

3. BALIOEN ARRAKALA

Gizarte haustura horien ondoriozko aldearekin batera, balioak gazte eta nagusien arteko desberdintasunen alderdi nagusietako bat dira. Hori bereziki aztertu da XX. mendearen bigarren erditik aurrera balio postmaterialistek izandako hedapenaren eta eraginaren ondoren. Fenomeno bereziki agerikoa da nolabaiteko ziurtasun ekonomiko eta existentziala duten herrialdeetan; segurtasun fisikoari eta egonkortasun ekonomikoari garrantzia ematek adierazpen indibidualaren eta bizi kalitatearen moduko hurbilagoko kontzeptu postmaterialistak baloratzen hasi ziren gizarteetan (Inglehart eta Baker, 2000). Dibertsitatearen onarpena, sekularizazioa, zoriontasuneko idealak, herritarren parte-hartzearen garrantzia, adierazpen askatasuna eta humanismoa dira kontzeptu horietako batzuk.

Lotura garrantzitsu bat dago balio postmaterialista horien eta jendearen hezkuntza mailaren edo gizarte klasearen artean, baina are garrantzitsuagoa da adinaren aldagaiarekin duen lotura. Horregatik da hain garrantzitsua belaunaldien arrakalaz aritzeko orduan. Jarraian, gazte eta nagusien arteko alde hori besteak beste zein alderditan nabarmentzen den adieraziko dugu. Zehazki, belaunaldien arteko alde nagusiak sei esparrutan azalduko ditugu: bizitzarekiko gogobetetasuna, politikarekiko harremana, ideologia, erlijioa, dibertsitatea eta ingurumena.

Bizitzarekiko gogobetetasuna

Aurrerabidearen adierazle garrantzitsu batek, bizitzarekiko gogobetetasunak, lotura positiboa du desberdinak direnekiko tolerantziarekin (Inglehart, 1998: 119), eta datuak adinaren arabera bereizten ditugunean ikusi ohi da. **Gipuzkoan, bizitzarekiko batez besteko gogobetetasuna hamarretik 7,66koa da, Euskadiko batez bestekoa baino apur bat handiagoa** (Eustat, 2020). Gaiari buruzko bibliografian ikus daitekeen moduan, 50 urtetik gorakoek izaten dituzte gogobetetasun- eta zoriontasun-maila txikiagoak. Lotutako beste aldagai batzuek ere belaunaldien arteko aldeak agertzen dituzte (4. grafikoa).


Antzeko zerbait gertatzen da bizitzaren balioarekin⁴. Gipuzkoako biztanleei galdetzen badiegu beren ustez zer neurritan merezi duen egiten dutenak, berriz ere, gazteek (16 eta 24 urte artekoek, bereziki) ematen dituzte baliorik altuenak (Eustat, 2020).

⁴ Jarrerazko aldagai hori lortzeko, Eustatek galdera hau egiten du: *Zer neurritan uste duzu bizitzan egiten duzunak merezi duela?*

Aldagai horretan, kezkarria da 25 eta 34 urtekoek beren jarduerari ematen dioten balioa, batezbestekoa baino askoz ere txikiagoa baita. Millennialak dira beren bizitza okerren baloratzen duen adin taldea eta haien % 51,5ek uste du 10 urte barru gaur egun baino okerrago biziko dela (GFA, 2021); hain zuzen, Anne Helen Petersenek «erretako belaunaldi» (2020) zeritzonaren seinale dira bi alderdi horiek. Kasu honetan, millennialen belaunaldia bi krisi sakonetatik igaro da eta haren itxaropenak hausturak

4. grafikoa

Bizitzarekiko gogobetetasunaren adierazleak Gipuzkoan, adin taldearen arabera



jasan ditu; horrek agerian jartzen du nolako eragina izan duten deskribatu ditugun hausturek.

Hori da, agian, centennialen eta millennialen arteko alderik handiena. 25 urtetik beherakoak, 2008ko krisiaren eragina hain zuzenean bizi izan ez zutenak, etorkizunarekiko talderik baikorrena dira. **Z belaunaldiaren % 20,4k uste du belaunaldi gazteak beren gurasoak baino hobeto biziko direla, baina millennialen % 12,1 soilik da halako baikorra** (GFA, 2021).

Gogo aldartearen alderdia ere gogobetetasun orokorrarekin lotuta dago. Horretan, adinaren aldagaiarekiko lotura are agerikoagoa da: zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta gogo aldarre okerragoa adierazten da (Eustat, 2020). Tradizioz, European Social Survey delakoaren (ESS) eta Munduko Balioen Inkestaren (WVS) moduko inkestetan zorientasunari buruz egiten diren galderek antzeko erantzunak jaso dituzte herrialde gehienetan.

Iturria: Geuk egina, Eustaten (2020) datuetan oinarrituta.

Halako ikerketetan, pertsonenganako konfiantza da aldagai tipikoetako bat. Ez da adierazle fidagarri bat norbanakoek beren komunitatearekiko duten lotura azaltzeko, baina kontrakoa ondo neurtzen du: misantropia eta indibidualismoa. Alderdi horretan, **dirudienez, millennialak eta centennialak besteengan konfiantza izateko joera handiagoa dute, eta gainerako belaunaldiak, aldiz, batezbestekoa baino nabarmen beherago kokatzen dira** (Eustat, 2020). Harrigarria da 35 eta 49 urte artekoen datua (X belaunaldikoak, gehienak),

baina agian datuak jasotzeko garaiak eragina izan du horretan, pandemia betean izan baitzen.

Politikarekiko harremana

Zaila da belaunaldi bakoitzak bere komunitate politikoarekin duen lotura neurtzea. Ohikoa izaten da pentsatzea politikarekiko interesik eza, sakona eta orokortua izateaz gain, handiagoa dela gazteen artean. Aitzitik, politikarekiko loturarik ez izate hori faktore anitzeko alderdi bat da eta ez da centennialengan soilik aurkitzen.


Batetik, gazteenek erakundeetan duten ordezkariak hutsala da. Beste herrialde batzuetan ez bezala, gure legerian, sufragio pasiboko eskubidearen (hauteskunde

batzuetan hautatua izateko eskubidea) eta sufragio aktiboko eskubidearen (botorako eskubidea) gutxieneko adina berbera den arren, oso ezohikoa da 30 urtetik beherako ordezkariak aurkitzea. Adinekoetan ere ordezkariak «falta» hori aurkitzen dugu eta pentsa daiteke are nabarmenagoa izango dela hurrengo hamarkadetan. Guztira, **botorako eskubidea duten Gipuzkoako biztanleen % 22k ez du ordezkariarik ez Eusko Legebiltzarrean ez Gipuzkoako Batzar Nagusietan** (5. grafikoa). Egia da ordezkariak sistemak ez zirela pentsatu gizartearen lagin estatistiko gisa funtzionatzeko, baina aipatutako desoreka⁵ nabarmentzekoa da.

Bestalde, gazteria ez da politikarekiko interes gutxien duen taldea. Are gehiago, Gipuzkoan, politikarekiko interesik ezak (CIS, 2020) korrelazio positiboa du adinarekin (6. grafikoa). Alabaina, alderdi honetan, beste aldagai batzuk erabakigarriak dira, esaterako, gizarte klasea eta hezkuntza maila. Euskadin, goi klaseko pertsonen % 19k

5. grafikoa

Belaunaldi bakoitzaren ordezkariak (%) Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean, biztanlerian duten pisuaren arabera (Gipuzkoa)




Iturria: Geuk egina.

⁵ Ikuspegi teoriko batetik, zerbait gaizki dagoela sumatzen dugu, baldin eta demokratikoki aukeratutako parlamentu bateko kideen % 90 gizonak badira. Ordezkariok beren bozkatzailen *ideiak* ordezkatzear arduratu behar diren arren, dirudienez, nolabaiteko tentsioa dago ideien politikaren eta presentziaren politikaren artean, Anne Phillipsek idatzitako *The politics of presence* (1995) teoria politikoaren klasikoak adierazten duen moduan. Horregatik hartu behar dugu kontuan zifra hori.

politikarekiko interes «oso handia» du, erdi klaseko eta behe klaseko pertsonen % Ilren aldean (Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2021).

6. grafikoa

Politikarekiko interes maila (%) Gipuzkoan, belaunaldien arabera bereizita



Iturria: Geuk eaina. CISen 3293. ikerketako (2020) datuetan oinarrituta.

«Boomerren» jarrerak gaiari buruzko sinplifikazioak apurtzen ditu. **Baby boomaren belaunaldiak haren alboko belaunaldiek baino interes handiagoa du politikarekiko.** Jarrerazko beste aldagai batzuekin gertatzen den moduan, 1950eko hamarkada inguruan jaio zirenek berezko izaera dute, aldaketa garaian sozializatu zirelako politikoki, agian. Belaunaldi horren joera X belaunaldiarenaz bestelakoa da, zeinak ez zuen halako politizazio gertakari garrantzitsurik bizi izan gaztaroan eta politikarekiko interesa baino desinteres handiagoa duen.

Egia da gazteek politikarekiko duten interesa handiagoa dela, baina aurreko belaunaldiek baino gogobetetasun maila txikiagoak dituzte sistemaren funtzionamenduari dagokionez. Nolanahi ere, haien ikuspegi kritikoa desberdintasun ideologiko sorta handiago batean sar daiteke.


Ideologia

Gazteen jarrera inkonformista belaunaldien arteko arrakalarekin lotzen da, baita familien barruko gatazkarekin ere. Baina hain desberdin pentsatzen al dugu?

Ideologia neurtzea ez da erraza, eta benetan irizten dugunari buruzko zantzu orientagarri batzuk soilik ditugu. Besteak beste, ezker-eskuin eskala aurki dezakegu. Sinesmen politikoak eskala numeriko batera sinplifikatzeak azalpenerako gaitasun murrizta du —bereziki, problematikoa delako ezker eta eskuina zer diren zehaztea—, baina pertsonak osotasunarekiko non kokatzen diren ulertzeko balio digu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren udazkeneko soziometroan (2021), belaunaldien arteko alde handiak zeuden biztanleek beren burua ideologikoki batez beste kokatzen zuten lekuari dagokionez (7. grafikoa). Nabarmentzekoa da Z belaunaldiak gainerako adin taldeekiko duen aldea, belaunaldi horren batezbestekoa 2,95 baita, eta gainerako guztiena 3,7tik gorakoa. Gainera, aipagarria da baby boomaren belaunaldikoak X belaunaldikoak baino pixka bat ezkerretarago kokatzen direla.


7. grafikoa
Gipuzkoako biztanleek beren burua ideologikoki kokatzen duten lekua (batez beste), belaunaldien arabera



Iturria: geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren udazkeneko soziometroan oinarrituta (2021)

Autodefinizio ideologikoak ere belaunaldien arteko alde ideologikoak ulertzen laguntzen digu (CIS, 2020). Ez da behin betiko adierazle bat, baina gure ideologiak nola definitzen ditugun jakitea lagungarria da joerak identifikatzeko. Batetik, **ikusi dugunez, kontserbadurismoa eta demokrazia kristaua ideologia garrantzitsuak dira, oraindik ere, belaunaldi isileko pertsonentzat**. Baina azpimarratu behar da, halaber, belaunaldi horretan erantzun gabekoen ehuneko handia dagoela. Bestalde, millennial eta centennialak gehiago identifikatzen dira feminismoarekin eta liberalismoarekin, besteak beste (8. grafikoa). Alabaina, emakume eta gizonen iritzi desberdinak dituzte – X belaunaldiarekin, boomer belaunaldiarekin eta belaunaldi isilarekin gertatzen denaren aurka–. **Emakume centennialen % 65,5ek eta millennialen % 41,7k**

8. grafikoa
Gipuzkoako biztanleen autodefinizio ideologikoa, belaunaldien arabera



Iturria: Geuk egina, CISen 3293. ikerketako (2020) datuetan oinarrituta.

feministatzat du bere burua; aldez, belaunaldi horietako gizonen ideologia adierazia heterogeneoagoa da (progresismoa, liberalismoa eta sozialismoa dira erantzunik ohikoenak).

Erlijioa eta dibertsitatea


Ohiko balio postmaterialisten multzoa osatzen duten elementuen artean, hala sekularizazioa nola migratzaileekiko eta beste talde diskriminatu batzuekiko tolerantzia aurki ditzakegu. Oro har, gazteenek sinesmen erlijioso maila txikiagoak izaten dituzte. **Gipuzkoan,**

15 eta 29 urte artekoen % 58,4k bere burua ez-sinestuntzat, ateotzat edo agnostikotzat du edo ez zaio erlijioa axola; datu horrek talka egiten du 2000. urtean adin horretan gauza bera erantzun zutenen ehunekoarekin: % 36,7 (GEB, 2019).

2012an, aldiz, % 64 ziren. Aipatu ditugun eraldaketa demografikoek eragin dute hori. Gaur egun, atzerriko jatorria duten pertsonen ehunekoa handitu da, bereziki, belaunaldi gazteenen artean. Ondorioz, beren burua musulmantzat edo kristau ortodoxotzat dutenen ehunekoa handiagoa da, nagusiki adin talde txikienetan (9. grafikoa).

Dibertsitatearekin duten harremanari dagokionez, **adinak ondo iragartzen du diskriminatutako kolektiboetako pertsonetikiko tolerantzia**. Adibidez, immigrazioak harrera herrialdeko kulturaren, ekonomian eta segurtasunean dituen ondorioei buruz Estatuan dagoen iritzia (10. grafikoa) okerragoa da adin nagusiagoa dutenen artean, gazteen artean baino (ESS, 2021).


9. grafikoa
Erljio-identifikazioa (%) Espainian (2021)



Iturria: Geuk egina, European Value Survey inkestan (2021) oinarrituta.

10. grafikoa
Immigrazioarekiko pertzepzioa (Espainia)

Batez besteko balorazioa, eskala: 0 (negatiboa) - 10 (positiboa)




Iturria: Geuk egina, European Value Survey inkestan (2021) oinarrituta.

Gipuzkoan (11. grafikoa), Z belaunaldiaren gehiengoak (% 66,3) uste du etorkizunean ez dela dibertsitatearekin lotutako bizikidetza arazo gehiago egongo, eta gainerako belaunaldietan ez da halako ehunekorik ikusten (GFA, 2021). Gainera, belaunaldi centennialeko biztanleak dira gaur egungo immigrazio maila handitzearen aldekoenak, % 42,6k hori pentsatzen baitu. Gauza bera gertatzen da gizartea zenbat eta dibertsioagoa izan orduan eta aberatsagoa izango ote den galdetzen denean; hain zuzen ere, centennialen % 65,5 eta millennialen % 47,1 guztiz ados daude, eta X belaunaldiko eta belaunaldi isileko kideak dira ikuspegi hori gutxien partekatzen dutenak (% 36,1 eta % 19,8, hurrenez hurren). Gai horretan, berriz ere, baby boomerrak belaunaldi gazteenetatik hurbilago daude, % 39 baitago esaldi horrekin ados (GFA, 2021).

11. grafikoa

«Gure gizarteak dibertsitatearekin lotutako bizikidetza-arazo gehiago izango ditu» baieztapenarekiko adostasun maila (Gipuzkoa)



Iturria: geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren udazkeneko soziometroan oinarrituta (2021)

lido beretik, zenbait tresna kualitatibok, esaterako, Ikuspegik prestatutako Dibertsitatearekiko irekitasunaren euskal indizeak (2021:169) —kontuan hartzen ditu beste alderdi batzuk, esaterako, pobrezia, immigrazioa, adina, sexu joera, erlijioa, itxura fisikoa eta dibertsitate funtzionala— eta zenbait ikerketa kualitatibok, hala nola gazteek immigrazioari buruz duten diskurtsoaren azterketak (Epelde eta Ochoa, 2017: 858) agerian jarri dute gazteak dibertsitatearekiko irekiago daudela.


Ingurumena

Gipuzkoan gehienek uste dute gure bizi ohiturak aldatu behar ditugula, klima larrialdia dela eta. Belaunaldi guztien % 90 inguruk uste du beharrezkoa dela gure mugikortasun ohiturak aldatzea, besteak beste (GFA, 2021). Hala ere, klima aldaketaren aurka borrokatzeko zenbait erosotasun alde batera utzi beharrari buruzko adostasun maila desberdina da belaunaldi batetik bestera, belaunaldi gazteenean, Z belaunaldian (% 97) zaharrenean (belaunaldi isila) baino handiagoa baita (% 77) (GFA, 2021).

Egoeraren premia gehiago jabetzen diren arren, **gazteak dira, paradoxikoki, beren eguneroko bizitzan ingurumen arazoak lehenesten ez dituztela gehien esaten dutenak (12. grafikoa)**, eta antzeko zerbait gertatzen da aitortutako kontsumo jasangarriko ohiturekin (GFA, 2021). Agian, gazteenek jasangarritasunari buruzko definizio zorrotzago bat dutelako gertatzen da hori. Horren adierazgarri da, hain zuzen, belaunaldi bakoitzak ingurumenarekin lotutako gaiari buruz duen ezagutzari eman dion puntuazioa. **Centennialek eta millennialek 10etik 6,3ko nota jartzen diote, batez beste, ingurumenari buruz duten ezagutzari; X belaunaldiak, berriz, aurrekoek baino bi aldiz bikain gehiago eta 6,6ko batez besteko puntuazioa ematen dio bere buruari** (GFA, 2021).

12. grafikoa

Ingurumen arazoak beren eguneroko bizitzaren gainera ez dituztela jartzen adierazi duten pertsonak (%), Gipuzkoan, belaunaldien arabera



Iturria: geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren udazkeneko soziometroan oinarrituta (2021)

Bestalde, ekonomia berde baterako trantsizioaren kostuak bere gain hartzerako orduan, dirudienez, konpromisoaz gain, ordaintzeko gaitasunak ere badu eragina. **Hala, baby boomaren belaunaldia da bere erosotasunak alde batera uzteko eragozpen gutxien jartzen duena, ingurumen inpaktua murrizte aldera** (GFA, 2021).

4. ONDORIOAK

Txosten honek, inkesten bidezko neurketa mugatuetan oinarritutako azterketa izanik, ezin dio osorik heldu gizartean dauden balioen konplexutasunari. Herritarren motibazio eta diskurtsoetara heltzeko metodologia kualitatiboak izanik ere, bereziki zaila izango litzateke ondorioak ateratzea. Hala ere, belaunaldien arabera berezitateko adierazle esanguratsuetara jotzeak aukera ematen digu Gipuzkoaren kasuan gertatzen diren erregulartasun batzuk identifikatzeko. Gainera, hori bereziki interesgarria da halako ikerketetan 18 eta 24 urte bitarteko centennial belaunaldia jaso ahal izan delako, oso ezohikoa baitzen duela gutxi arte.

Adierazi dezakegu, alde batetik, **deskribatu ditugun haustura sozial sakonek (demografia, ekonomia eta kultura) eragin nabarmena dutela balioetan**. Hori bereziki nabarmena da millennialak bizitzarekiko duten gogobetetasunari dagokionez. Halaber, ikusi dugu testuinguruak eragin hori duela centennialak immigrazioarekiko eta kulturartekotasunarekiko duten pertzepzio positiboan. Aldiz, beste aldagai batzuek aurreiritziak desegiten laguntzen digute. Datu interesgarri batzuk aipa ditzakegu:

- Gazteak indibidualistatzat jotzen dituen ideien aurka, **centennialak eta millennialak adierazi dutenari jarraikiz, gainerako belaunaldiek baino konfiantza handiagoa dute besteengan**.
- Erakundeekiko jarrera kritikoa duten arren, **belaunaldi gazteenek eta baby boomaren belaunaldiak interes handiagoa dute politikarekiko**. X belaunaldiak (41-56 urte), aldiz, interes faltarik handiena agertu du.
- Balioei dagokienez, baby boomaren belaunaldia eta belaunaldi isila oso desberdinak dira. Baby boomaren belaunaldiak ingurumenari buruz duen kontzientziak, ideologiari dagokionez duen idiosinkrasiak eta biztanleria pisuak iragartzen dutenez, **belaunaldi horrek zahartzaroaren kontzeptua sakonki birdefinituko du**.
- Era berean, gazteria ez da homogeneoa eta alde nabarmenak daude centennialen eta millennialen artean. Centennialak gusturago eta zoriontsuago daude beren bizitzarekin. **Kezkagarria da elkarren segidako krisiek millennial belaunaldiaren balioetan utzi ahal izan duen «arrastoa»**.
- **Ideologiari dagokionez, nabarmentzekoa da belaunaldi gazteenetan (centennialak eta millennialak) gizon eta emakumeen artean dagoen polarizazioa**, zeinak liberalismoa eta feminismoa aukeratzen dituzten, hurrenez hurren, ideologia nagusi gisa. Fenomeno hori adin talde horietan soilik gertatzen da.

Metodologia kualitatiboak eta panel azterketak erabiltzea lagungarria izan daiteke balio horiek etorkizunean Gipuzkoako gizartean izango duten inpaktua eta iraunkortasuna ezagutzeko.

ERREFERENTZIAK

ALWIN, Duane F. eta McCAMMON, Ryan J. (2007). Rethinking Generations. *Research in Human Development*, 4(3-4), 219.-237. OR.

CJE (2021). *Observatorio de emancipación: 2020ko 2. seihilekoa*. Espainiako Gazteria Batzordea. Hemendik hartua: <http://www.cje.org/es/publicaciones/novedades/observatorio-de-emancipacion-segundo-semester-2020/>

EPELDE, Maddalen eta OCHOA DE ASPURU, Oier (2017). «La nueva sociedad vasca diversa». In J. A. Oleaga. (Arg.), *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal llamadas) segundas generaciones* (807.-886. or.). Bilbo: UPV/EHU. Hemendik hartua: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/es/diversidad_infantil/Diversidad_infantil_juvenil_CAE.pdf

EUSKO JAURLARITZAREN PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2021). 73. *Euskal Soziometroa*. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/dokumentazioa/2021/73-euskal-soziometroa/>

GUTIÉRREZ, Juan eta REGIDOR, Enrique (1993). Evolución de la Mortalidad en el primer año de vida en España (1975-1988). *Gaceta Sanitaria*, 7. zk., 110.-115. or.

IKUSPEGI (2021). *Discriminación y diversidad en la CAE: Perspectivas, ámbitos y colectivos*. Bilbo: UPV/EHU. Hemendik hartua: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/discriminacion_diversidad_CAE_casOK.pdf

INGLEHART, Ronald (1998). *Modernización y posmodernización. El cambio cultural, económico y político en 43 sociedades*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS)

INJUVE eta CJE (2020). *Juventud en riesgo: análisis de las consecuencias socioeconómicas de la COVID-19 sobre la población joven en España*. Injuve eta Espainiako Gazteria Batzordea. Hemendik hartua: <http://www.injuve.es/observatorio/formacion-empleo-y-vivienda/estudio-consecuencias-economicas-covid-19-en-la-juventud>

MONTORIOL, Judit eta FARRÀS, Cristina (2018). *La situación financiera de los hogares millennials en EE. UU. y España: ¿serán capaces de alcanzar a las anteriores generaciones?* CaixaBank Research. Hemendik hartua: <https://www.caixabankresearch.com/es/economia-y-mercados/mercado-laboral-y-demografia/situacion-financiera-hogares-millennials-ee-uu-y>

NADAL, Jordi (1976). *La población española (siglos XVI a XX)*. Bartzelona: Ariel argitaletxea.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2019). *Gazteen adierazleak 2019. Euskadiko Gazteen Panoramika*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik hartua:

https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteen_panoramika/es_liburuak/adjuntos/gazteen_adierazleak_19_c.pdf

OECD (2017). *Preventing Ageing Unequally*. Paris: OECD Publishing. Hemendik hartua: <https://www.oecd.org/health/preventing-ageing-unequally-9789264279087-en.htm>

OLEAGA, José Antonio (arg.) (2017). La diversidad infantil y juvenil en la CAE: las (mal) llamadas segundas generaciones. Ikuspegi - Euskal Herriko Unibertsitatea. Hemendik hartua: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/Diversidad_infantil_juvenil_CA.pdf

ORKESTRA – Lehiakortasunerako Euskal Institutua (2021). *EAEko lehiakortasunari buruzko 2021eko txostena*. Deustuko Unibertsitatea. Hemendik hartua: <https://www.orkestra.deusto.es/eu/ikerketa/euskal-autonomia-erkidegoko-lehiakortasunari-buruzko-txostena>

PETERSEN, Anne H. (2020). *Can't even: How millennials became the burnout generation*. Boston: Houghton Mifflin Harcourt

SEVILLA, Jordi, SANTA CRUZ, Belén eta ORTEGA, Diana (2021). *Brecha entre jóvenes y mayores*. El Observatorio Social, La Caixa. Hemendik hartua: <https://elobservatoriosocial.fundacionlacaixa.org/-/brecha-entre-jovenes-y-mayores>

Kontstatututako datu baseak:

Centro de Investigaciones Sociológicas – CIS (2020). 3293. ikerketa

Gipuzkoako Foru Aldundia – GFA (2021). *Udazkeneko soziometroaren* mikrodatuak

European Social Survey – ESS (2021)

Eurostat (2021)

Estatistikako Institutu Nazionala- EIN (2021).

Gazteen Euskal Behatokia (2021)